

Eguneratua: 2020/10/08

**ZURE ZALANTZAK ARGITUKO
DITUGU,**

**PREBENTZIO NEURRI
EZOHIKOEI
ETA
MASKARA
NAHITAEZ ERABILTZEARI
BURUZ**

COVID-19aren

osasun-krisiari aurre egiteko

**Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren
Zerbitzua**



AURKIBIDEA

- 1. Berritasun nagusiak**
- 2. Maskara nahitaez erabiltzea**
- 3. Beste prebentzio neurri batzuk**
- 4. Neurriak ez betetzeagatiko zehapenak**

- 34/2020 Foru Agindua, uztailaren 15ekoa, Osasuneko kontseilariak emana
- 35/2020 Foru Agindua, uztailaren 17koa, Osasuneko kontseilariak emana
- 7/2020 Foru Lege-dekretua, uztailaren 22koa (indargabetua)
- 598/2020 Ebazpena, abuztuaren 5ekoa
- 37/2020 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, Osasuneko kontseilariak emana
- 8/2020 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa
- Nafarroako Gobernuaren abuztuaren 26ko Erabakia
- 42/2020 Foru Agindua, irailaren 11koa, Osasuneko kontseilariak emana.
- 9/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa. Prebentzio neurriak ez betetzeagatiko zehapenak ezartzen ditu.
- 44/2020 Foru Agindua, irailaren 24koa, Osasuneko kontseilariak emana
- 47/2020 Foru Agindua, urriaren 1ekoa, Osasuneko kontseilariak emana
- 51/2020 Foru Agindua, urriaren 8koa, Osasuneko kontseilariak emana

1 Berritasun nagusiak

- Maskara nahitaez erabili behar da 12 urtetik aurrera, bermatu ahal bada ere pertsonen arteko segurtasun-tartea 1,5 metrokoa dela.
- 6 eta 12 urte bitarteko pertsonak, 12 urteak bete gabe badituzte, behartuta daude maskarak erabiltzera, baldin eta ezin badira 1,5 metro horiek gorde.

Zehapenak, ezarritako neurriak ez betetzeagatik (9/2020 FLD, irailaren 16koa)

- Arau-hauste administratiboak hiru motatakoak dira: arinak, astunak eta oso astunak, irizpide hauen arabera: osasunerako arriskua, intentzionalitate maila, sortutako osasun- eta gizarte-kaltearen larritasuna eta arau-haustea orokortzea eta berrerortzea.
- Arau-hauste arinek 100 eurotik 3.000 eurorainoko isuna izanen dute zehapen.
- Arau-hauste larriek 3.001 eurotik 60.000 eurorainoko isuna izanen dute zehapen.
- Arau-hauste oso astunek 60.001 eurotik 600.000 eurorainoko isuna izanen dute zehapen.
- Maskara jantzita ez eramateak edo desegoki erabiltzeak 300 euroko zehapena izanen du, gutxienez, baldin eta arau-hausleak ez badu errespetatzen 1,5 metroko segurtasun-tarte fisikoa.
- Kale-zurrutak 600 euroko isunarekin zehatuko dira, gutxienez.

Urriaren 1eko 47/2020 Foru Aginduaren neurri berriak.

- Txikizkako merkataritza establezimenduak eta lokalak eta jarduera eta zerbitzu profesionalekoak, jendearentzat irekita daudenak eta merkataritza-gune edo -parkeen parte ez direnak:
 - o ezin izanen da gaintitu baimenduriko gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar.
 - o Lokalek solairu bat baino gehiago baldin badute, proportzio berari eutsi beharko zaio.
 - o Saiatu behar da 65 urtetik gorakoei zerbitzua lehentasunez ematen.

- Merkataritza gune eta parkeak edo haien parte direnak
 - o Merkataritza-gune eta -parkeak: ezin izanen da gainditu baimenduriko gehieneko edukieraren ehuneko berrogei eremu komunetan eta atsedeen eremuetan.
 - o Merkataritza-gune eta -parkeetan dauden lokaletan ezin izanen da gainditu baimenduriko gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar.
 - o Saiatu behar da 65 urtetik gorakoei zerbitzua lehentasunez ematen.

Irailaren 11ko 42/2020 Foru Aginduaren neurri berriak eta 44/2020 Foru Aginduarenak

- Erabilera publikoko eremu irekietan (kaleak, plazak, parkeak, etab.), gehienez ere 6 pertsonako taldeak, bizikideak izan ezik.
- Bilera pribatuetan, gomendatzen da gehienez ere sei pertsonako multzoak egitea, bizikideak izan ezik.
- Ezin da barran kontsumitu eguerdiko 12etatik aurrera.
- Ostalaritza establezimenduen eta jatetxeen barnean eta aire zabaleko terrazetan, mahaietan sei pertsona egoten ahalko dira gehienez, eta segurtasun-tartea gorde beharko da.
- Debeku da alkohola saltzea 22:00etatik 08:00etara, salbu eta lizentzia hauek dituzten establezimenduetan: taberna berezia, ikuskizunetarako kafetegia, tabernak, kafetegiak eta jatetxeak.
- Elkarte gastronomikoak eta peñak, itxita.
- Ezkontza zeremoniak eta beste ospakizun sozial, erlijioso edo zibil batzuk
 - o Instalazioek ez dute gaindituko edukieraren ehuneko berrogeita hamar, eta erabiltzaile bakoitzeko 2,25 metro koadroko tokia beharko da.
 - o Irailaren 14tik aurrera, ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuetako ospakizunak gehienez berrogeita hamar lagunekoak izanen dira establezimenduetan, barnean, eta hirurogeita hamabost lagunekoak, kanpoan.
 - o Debeku da dantzatzeko pista erabiltzea.
- Gurtza-lekuetan ezin izanen da gainditu baimendutako gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar, eta, kasu guztietan, 2,25 metro koadro egon beharko dira erabiltzaile bakoitzeko.

- Akademiak, autoeskolak eta irakaskuntza ez-arautuko zentro pribatuak eta prestakuntza zentroak: aurrez aurreko klaseak, baldin eta baimendutako gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar gainditzen ez bada.
- Beilak eta hiletak.
 - Beilak: ezin izanen da gainditu gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar.
 - Hiletak: 50 pertsonara mugatzen da, barnean hartuta familiakoak, hurkoak eta kultu ministroa.
- Azoka txikiak: postuak aurrez aurre bananduta egonen dira, 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia bermatuko duen igarobide baten bidez. Elkarren ondoko bi posturen artean elementu isolatzaileak paratuko dira.
- Aisialdiko igerilekuetan, kanpokoetan zein estalietan, edukieraren ehuneko berrogeita hamarreko muga gorde beharko da, hala haietara sartzeko nola aisialdiko jardueretan bertan.
 - Espazio itxietan eta norbaitek gidatuta egindako kirol-jarduera fisikoak: gehenez hamabost pertsonako taldeak.
- Joko eta apustuatarako establezimenduak eta lokalak: baimendutako edukieraren ehuneko berrogeita hamar gainditzen ez bada.
- Irailaren 14tik aurrera, espazio itxietako kultur ekitaldietan, ez da gaindituko gehenez baimendutako edukieraren ehuneko hirurogei, eta eserlekuak aurrez esleitu beharko dira. Edukiera 350 pertsonatik gorakoa bada, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak txosten bat eman beharko du aldez aurretik.

42/2020 Foru Aginduaren aurreko bestelako neurriak (irailaren 11)

Abuztuaren 17ko 8/2020 Foru Lege-dekretuaren neurri berriak, eta Nafarroako Gobernuaren abuztuaren 26ko Erabakia.

- Debekatuta dago bide publikoan edo aire zabalean erretzea, baldin eta ezin bada gorde 2 metroko gutxienerako tartea pertsonen artean. Muga hori bera aplikatuko da tabakoa arnasteko beste edozein gailu, ur-pipak, pipak edo antzekoak erabiltzeko.
- Debekatuta daude alkohola kontsumitzeko bizikidetzak topaketak

- eta aisialdiko ospakizunak ("kale-zurruta" eta antzekoak) bide publikoan, parkeetan eta plaza publikoetan eta jendea dabilen beste toki batzuetan.
- Ostalaritzako establezimenduak, jatetxeak eta terrazak 01:00ean itxiko dira, gehienez ere, husteko lanak barne hartuz. Ezin izanen da bezero berririk hartu 00:00etatik aurrera. "Festak ospatuko liratekeen" aldian, 00:00etan itxi beharko dute.
 - Josteta establezimendu eta aretoak, ziberzentroak, bingo aretoak, joko aretoak eta kirol aretoak 01:00ean itxiko dira beranduenez, establezimendua husteko lanak barne. Ezin izanen da bezero berririk hartu 00:00etatik aurrera. "Festak ospatuko liratekeen" aldian, 00:00etan itxi beharko dute.
 - Taberna berezien eta ikuskizunetarako kafetegien lizentzia duten establezimenduen ordutegia: jarduten ahalko dute irekitzeko ordu orokorretik (13:00ak) goizeko 01:00a arte. "Festak ospatuko liratekeen" aldian, 00:00etan itxi beharko dute.
 - Tabernetan, kafetegietan, jatetxeetan, terrazetan, taberna berezietan eta ikuskizunetarako kafetegietan:
 - o Gehienez 6 pertsona egoten ahal dira mahai batean edo mahai multzo batean.
 - o Mahaien edo mahai multzoen arteko gutxieneko distantzia bermatu beharko da.
 - o Barrako zerbitzuan 1,5 metroko distantzia bermatu beharko dute.
 - Debekatuta dago dantzalekuen eta diskoteken lizentzia duten establezimenduen jarduera, zuzeneko musika emanaldiak izan nahiz ez.
 - Aisialdiko etxabeak, piperok, "pipoteak" edo gisakoak itxita egonen dira. 500 biztanletik beherako udalerrri eta kontzejuetan, biltzeko lokal bakarra badago, alkateek baimentzen ahalko dute horien terrazak erabiltzea eta, salbuespen gisa, horien barrualdea.
 - Jende asko biltzen den ekitaldiak egiteko NOPLOIren alde aurreko arrisku-ebaluazioa behar da. Behin hori eginda, eskumena duen organoak baimena emanen du, aurrez NOPLOIren nahitaezko txosten loteslea eginda. Txosten hori ekitaldia baino 7 egun baliodun lehenago eskatu beharko da, gutxienez, ispdirec@navarra.es helbide elektronikoaren bidez, "Gaia: EKITALDIA" adieraziz.
 - Dantza irakasteko edo egiteko aretoak. Edukiera kalkulatzeko irizpidea, hauex: 5 metro koadro pertsona bakoitzeko. Gainera, ezin bada 1,5 metroko segurtasun-tartea gorde, maskarak erabili beharko dira.

- Aire zabaleko aretoak eta ikuskizun publikoetarako eta josteta edo aisialdiko jardueretarako erabiltzen diren lokalak (zinemak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak eta antzekoak ez direnak): eserlekuak beharko dituzte eta ez dute baimendutako edukieraren %75 gaindituko. Edukiera 700 pertsonakoa baino gehiagokoa bada, beharrezko neurriak baloratuko dira, beharrezkoak balira.
- Zezen plazetan eta zezenketetarako esparru eta instalazioetan, jarduerak ezin izanen du gainditu baimendutako gehieneko edukieraren %75, eta eserlekuak aldeztu aurretik esleituko dira. Edukiera 700 pertsonakoa baino gehiagokoa bada, beharrezko neurriak baloratuko dira, beharrezkoak balira.
- Adinekoen elkarteak: gehieneko edukieraren %50 arte.
- Haurtzaindegiak: jarduera garatzeko prebentzio eta antolaketarako protokoloa beharko dute izan.
- Bederatzi toki arteko (gidaria barne hartuta) ibilgailuak erabiliz egiten diren bidaiarien garraio publikoan ibilgailuko atzeko toki guztiak okupa daitezke, baita aurreko ilarako eserlekuak ere, atzekoak bukatu direnean eta gidaria horren kontra ez badago.
- Egoitza soziosanitarioak.

PCR proba diagnostikoak egitea

Gehenez ere 72 orduko aurrerapenarekin, PCR probak egiten zaizkie 14 egunetik gorako baimenetatik eta oporraldietatik itzultzen diren langile guztiei, bai eta lanean hasten diren langile berri guztiei ere.

Bisitak.

- Adinekoen eta desgaitasunen bat duten pertsonen zentro soziosanitarioetan bizi diren pertsonak bisitatzeko, pertsona bakarra sartuko da egoiliar bakoitzeko eta gehenez ere ordubetez egunean.
 - Salbuetsiko da egoiliarrak bizitzaren azken prozesuan daudenean.
 - Bermatuko da egunean zehar egiten diren bisitak mailakatuta izanen direla.
- Egoiliarrak kalera ateratzea
- Irteerak ahalik eta gehien mugatuko dira.
- PCR bidezko baheketak berariazko taldeetan egiten dira

2 Maskara nahitaez erabiltzea

34/2020 Foru Agindua, uztailaren 15ekoa, Osasuneko kontseilariak emana.

1. G- Nafarroako Foru Komunitatean nahitaez erabili behar da maskara?

E- Bai, 2020ko uztailaren 17ko 00:00etatik aitzina, **bermatu ahal bada ere** pertsonen arteko segurtasun-tartea **1,5 metrokoa dela**.

12 urtetik aitzina nahitaezkoa da maskara uneoro erabiltzea, honelako egoeretan:

- a) Bide publikoan eta aire zabaleko eremuetan.
- b) Erabilera publikoko eremu itxietan edo jendearendako irekita daudenetan, baldin eta eremu berean beste pertsona batzuekin elkartzeko aukera badago.
- c) Garraibide publiko edo pribatuko mota guztietan, salbu eta barruan doazen guztiak etxe berean bizi baldin badira.

2. G- Zenbat urtetik aitzina da nahitaezkoa maskara erabiltzea?

E- **12 urtetik** aitzina nahitaezkoa da maskara erabiltzea.

6 eta 12 urte bitarteko pertsonak, 12 urteak bete gabe badituzte, bide publikoan, aire zabaleko espazioetan eta erabilera publikoa duen edo jendearentzat irekita dagoen edozein espazio itxitan **maskarak erabiltzera behartuta daude**, baldin eta ezin bada **bermatu** gutxienez **1,5 metroko** segurtasun-tartea dagoela pertsonen artean.

3. G- Aski da maskara alboan eramatea?

E- Ez, nahitaezkotasuna maskararen erabilera egokiari ere badagokio, maskarak sudurreko trenkadaren zati batetik kokotseraino (barne) estali behar baitu.

4. G- Zein egoeratan ez da nahitaezkoa maskara erabiltzea?

E- Oro har, honako salbuespen hauek ezarri dira:

- a) Elikagaiak eta edariak kontsumitzen diren bitartean, eta/edo maskara erabiltzearekin bateraezinak diren jardueretan.

- b) Kirol jarduerak egiten diren bitartean, betiere pertsonen arteko segurtasun-tartea bermatzen ahal bada. Kirol instalazio edo zentroetako gune komun batetik bestera ibiltzean maskara uneoro erabili beharko da.
- c) Bainua hartzen den bitartean, igerilekuetan edo bainurako gaitutako beste toki batzuetan.
- d) Biziguneetatik kanpo egiten diren naturari loturiko jardueretan, hala nola mendi-ibiliak, eskalada, mendi-igoerak, txirrindularitza eta antzekoak, betiere pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatzen ahal bada.
- e) Titulartasun publiko eta pribatuko lantokietan, betiere langileen artean 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatzen ahal bada.
- f) Arnasa hartzeko zailtasunen bat duten pertsonen kasuan, maskararen erabilerak larriagotu baitezake.
- g) Beren mendekotasun edo desgaitasun egoerarengatik maskara kentzeko autonomiarik ez duten pertsonen kasuan, edo hura erabiltzea ezinezko egiten duten jokabidearen nahasmenduak dituztenean.
- h) Ezinbesteko kasuetan.

5. G- Nor ez dago behartuta maskara janztera?

E- Maskara erabiltzetik salbuetsita daude:

- Arnasa hartzeko zailtasunen bat duten pertsonak, maskararen erabilerak zailtasun hori larriagotu baitezake.
- Mendekotasun- edo desgaitasun-egoerarengatik maskara kentzeko autonomiarik ez dutenak.
- Erabilera bideraezina egiten duten jokabidearen nahasmenduak dituztenak.
- Ezinbesteko kasuak.

6. G- Nola egiaztatu behar dute beren egoera maskara janztera behartuta ez dauden pertsonak?

E- Segurtasun indar eta kidegoek hala eskatuz gero, **erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da**, salbuetsita dagoen pertsonak edo haren legezko tutoreak sinatuta.

Erantzukizunpeko adierazpena dokumentu honen **eranskinean** jasotako **ereduaren** arabera egingen da.

7. G- Ostatueta, kafetegietan, jatetxeetan, terrazetan eta

abarretan nahitaezkoa da maskara erabiltzea?

E- Bai, elikagaiak eta edariak kontsumitzen diren unean izan ezik.

Hala, maskara erabiltzea nahitaezkoa da ondokoetan:

- edariak zerbitzatu arte itxaroten den bitartean, janaria edo edaria amaitu ondoren, bazkal/afalondoan edo solasaldian gaudenean, etab.

8. G- Nola egon behar dut taberna edo jatetxe bateko terrazan?

E- Maskararekin, beti. Elikagaiak eta edariak kontsumitzen ari garen unean bakarrik ken dezakegu, baita hori erabiltzetik salbuesten diren gainerako kasuetan ere (arnasteko zailtasuna, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsona ez-autonomoak, jokabidearen nahasmenduak dituztenak eta ezinbesteko egoerak).

9. G- Elkarte gastronomikoetan nahitaezkoa da maskara erabiltzea?

E- Bai, elikagaiak eta edariak kontsumitzen ari garen unean bakarrik ken dezakegu, baita hori erabiltzetik salbuesten diren gainerako kasuetan ere (arnasteko zailtasuna, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsona ez-autonomoak, jokabidearen nahasmenduak dituztenak eta ezinbesteko egoerak).

10. G- Kirola egin behar dudanean, maskara jantzi behar dut?

E-

- Pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatzerik badago, ez da nahitaezkoa maskara erabiltzea.
- Pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatzerik ez badago, nahitaezkoa da maskara erabiltzea.

Kirol instalazio edo zentroetako **gune komun** batetik bestera ibiltzean maskara une oro erabili beharko da.

11. G- Igerilekuan nahitaezkoa da maskara erabiltzea?

E- Bai, salbuespen hauekin:

- Bainatzeko unean, ez da nahitaezkoa.
- Eguzkia hartzen etzanda zauden bitartean, ez da nahitaezkoa, betiere pertsonen arteko distantzia 1,5 metrokoa bada.

Bainu-eremura joateko ez diren joan-etorrietan, maskara erabili beharko da.

12. G- Ibaietan edo bainurako natura guneeetan nahitaezkoa da maskara erabiltzea?

E- Bai, salbuespen hauekin:

- Bainatzeko unean, ez da nahitaezkoa.
- Eguzkia hartzen etzanda zauden bitartean, ez da nahitaezkoa, betiere pertsonen arteko distantzia 1,5 metrokoa bada.

Bainu-eremura joateko ez diren joan-etorrietan, maskara erabili beharko da.

13. G- Mendi-ibilietan, eskaladan, mendiak igotzean, bizikletan eta abarretan maskara erabili behar dut?

E- Naturako jardueretan, herriguneetatik kanpo, hala nola mendi-ibiliak, eskalada, mendizaletasuna, txirrindularitza eta antzekoak:

- Pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatzerik badago, ez da nahitaezkoa maskara erabiltzea.
- Pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatzerik ez badago, nahitaezkoa da maskara erabiltzea.

14. G- Nirekin bizi ez diren senide edo lagunak etxera gonbidatzen badituz, maskara eraman behar al dugu?

E- Ez, baina oso komenigarria da. Era berean, segurtasun-tartea gorde behar da.

15. G- Lantokian nahitaezkoa da maskara erabiltzea?

E- Lantokietan ez da nahitaezkoa maskara erabiltzea, betiere langileen artean 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatzen ahal bada.

Salbuespen hau ez da aplikatuko jendearentzat irekita dauden lantokietako guneeetan, horietan nahitaezkoa izanen baita maskara erabiltzea.

16. G- Hegazkinez, itsasontziz, trenez edo autobusez bidaiatzen badut, nahitaezkoa da maskara erabiltzea?

E- Bai. Nahitaezkoa da aireko eta itsasoko garraiobideetan, autobusetan, trenetan eta, orobat, bidaiarien garraio publiko eta pribatu osagarrietan, bederatzi tokira arteko ibilgailuetan (gidaria barne),

ibilgailuan doazen guztiak etxe berean bizi ez badira.

Gogorarazten da 6 eta 12 urte bitarteko pertsonak, 12 urteak bete gabe badituzte, maskarak erabiltzera behartuta daudela, ezin bada bermatu pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tartea gordeko dela.

17. G- Autoan nahitaez jantzi behar dut maskara?

E-

- Nahitaezkoa da zurekin bizi ez diren pertsonak badoaz autoan.
- Ez da nahitaezkoa zurekin bizi diren pertsonak badoaz autoan.

18. G- Garraio publikoan nahitaezkoa da maskara erabiltzea?

E- Bai, garraio publikoan nahitaezkoa da maskara erabiltzea.

Gogorarazten da **6 eta 12 urte bitarteko pertsonak, 12 urteak bete gabe badituzte, maskarak erabiltzera behartuta daudela, ezin bada bermatu** pertsonen artean **1,5 metroko** segurtasun-tartea gordeko dela.

19. G- Motozikletetan, ziklomotoreetan eta L kategoriako ibilgailuetan nahitaezkoa da maskara erabiltzea?

E- Motozikleta, ziklomotor eta L kategoriako ibilgailuetan:

- Kasko integrala eramanez gero, ez da nahitaezkoa maskara erabiltzea.
- Bakarrik joanez gero ere ez da nahitaezkoa maskara jarrita eramatea.
- Bi bidaiari doazenean, maskara edo kasko integrala eraman beharko dute etxe berean bizi ez badira.

Bidaiariak **eskularruak erabili beharko dituzte** nahitaez, eta gidariak ere bai, erabilera partekaturako motozikletetan eta ziklomotorretan bidaiatuz gero. Ondorio horietarako, motor-gidarien babeseko eskularruak onartuta daude.

20. G- Ikastetxeetan nahitaez erabili behar da maskara?

E- Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan maskararen erabilera arautuko da ondorio horretarako emanen diren berariazko xedapenei jarraikiz, uneko egoera epidemiologikoaren arabera.



3 Beste prebentzio neurri batzuk

21. G- Kalem erre daiteke?

E- Debekatuta dago bide publikoan edo aire zabalean erretzea, baldin eta ezin bada gorde 2 metroko gutxieneko tartea pertsonen artean. Muga hori bera aplikatuko da tabakoa arnasteko beste edozein gailu, ur-pipak, pipak edo antzekoak erabiltzeko.

22. G- Zenbat pertsona bil gaitzke kalem?

R- Erabilera publikoko eremu irekietan (kaleak, plazak, parkeak, etab.), **gehienez ere 6 pertsonako taldeak**, bizikideak izan ezik. Horretaz gainera, osasun arloko agintariek COVID-19ari aurrea hartzeko ezartzen dituzten segurtasun eta higie-ne neurriak errespetatu beharko dituzte.

23. G- Zenbat pertsona bil gaitzke bilera pribatu batean?

R- Berriz ere gomendatzen da **gehienez ere 6 pertsona** elkartzea lagun-en edo familien bilera pribatuetan, elkarrekin bizi direnen kasuan izan ezik.

24. G- Zer ordutan itxi behar dute taberna, kafetegi, jatetxe eta terrazaren jardura duten establezimenduek?

E- Ostalaritzako establezimenduak, jatetxeak eta terrazak **01:00ean itxiko dira** beranduenez, establezimendua husteko lanak barne, **eta ezin izanen da bezero berririk onartu 00:00etatik aurrera.**

Oharra: Nafarroako Foru Komunitate guztiko **herrietako festak** izanen liratekeen aldietan, **00:00etan itxi beharko dute**; ordutegi horren barruan ez da sartzen jendea lokaletik joateko denbora bitartea.

Era berean, eten egiten dira ordutegi berezietarako baimenak (201/2002 Foru Dekretua, irailaren 23koa).

25. G- Kontsumitu daiteke barran eguerdiko 12etatik aurrera?

E- Ez. Ostalaritzako establezimenduetan eta jatetxeetan, lokalaren barnean, kontsumoa eserita egiten ahalko da, mahai batean edo mahai batzuk elkartuta, 12:00etatik aurrera.

26. G- Sal daiteke alkohola 22:00etatik aurrera?

E- “Debeku da alkohola saltzea 22:00etatik 8:00ak arteko tartean, publikoari saltzen dioten mota guztietako establezimenduetan, edozein dela ere duten lizentzia, salbu eta lizentzia hauek dituzten establezimenduetan: taberna berezia, ikuskizunetarako kafetegia, tabernak, kafetegiak eta jatetxeak. Horien baldintzak eta ordutegiak berariaz aurreikusitakoak izanen dira.”

27. G- Zer ordutan itxi behar dute josteta areto, ziberzentro, bingo areto, joko areto eta kirol aretoak?

E- Josteta aretoak, ziberzentroak, bingo aretoak, joko aretoak eta kirol aretoak **01:00ean** itxiko dira beranduenez, establezimendua husteko lanak barne, **eta ezin izanen da bezero berririk onartu 00:00etatik aurrera.**

Oharra: Nafarroako Foru Komunitate guztiko herrietako festak izanen liratekeen aldietan, **00:00etan itxi beharko dute**; ordutegi horren barruan ez da sartzen jendea lokaletik joateko denbora bitartea.

Era berean, eten egiten dira ordutegi berezietarako baimenak (201/2002 Foru Dekretua, irailaren 23koa).

28. G- Zer ordutegi eta baldintza bete beharko dituzte taberna berezien eta ikuskizunetarako kafetegien lizentzia duten establezimenduek?

E- Taberna berezien eta ikuskizunetarako kafetegien lizentzia duten establezimenduen kasuan, jarduten ahalko dute irekitzeko ordu orokorretik **(13:00ak) goizeko 01:00a arte.**

Baldintzak:

- **Gehienez 6 pertsona** egoten ahal dira mahai batean edo mahai multzo batean.
- Barrako zerbitzuan 1,5 metroko distantzia bermatu beharko dute. Eguerdiko 12:00etatik aurrera, kontsumoa soilik mahaietan.
- Era berean, mahaietan edo mahai multzoen arteko gutxieneko distantzia bermatu beharko da.
- Erabiltzen diren mahaiak edo mahai-multzoek egokiak beharko dute izan, kontuan harturik zenbat pertsona izanen diren, bermatzeko pertsonen arteko segurtasun-tartea errespetatzen dela.

Oharra:

- Nafarroako Foru Komunitate guztiko **herrietako festak** izanen liratekeen aldietan, **00:00etan itxi beharko dute**; ordutegi horren barruan ez da sartzen jendea lokaletik joateko denbora bitartea.
- Establezimendu horiek udal baimen bereziak baldin badituzte irekitzeko ordua aurreratzeko –bat etorriz ikuskizun publikoen eta josteta jardueren ordutegi orokorra ezarri zuen irailaren 23ko 201/2002 Foru Dekretuaren 6.2 c) artikuluan xedatutakoarekin–, toki entitateak baimendutako ordutegian eta baldintzetan jarduten ahalko dute, gorago aipatutako okupazio-baldintzen arabera.

29. G- Zenbat pertsona bil gaitzke mahaian ostalaritzako eta sukaldaritzako lokaletan?

E- Ostalaritza establezimenduen eta jatetxeen **barnean** eta **aire zabaleko terrazetan** (establezimendua edozein dela ere), mahaietan **sei pertsona egoten ahalko dira gehienez**, eta segurtasun-tartea gorde beharko da.

- **Ahalik eta gehien erabiliko da maskara**, eta pertsonen arteko tartea gordeko.
- **Barrako zerbitzuan 1,5 metroko distantzia bermatu beharko dute.**
- Erabiltzen diren mahaiek edo mahai-multzoek egokiak beharko dute izan, kontuan harturik zenbat pertsona izanen diren, bermatzeko pertsonen arteko segurtasun-tartea errespetatzen dela.

Neurri horiek berak aplikatuko zaizkio ostalaritza, jatetxe edo terraza zerbitzuren bat ematen duen establezimendu, jarduera edo instalazio orori.

30. G- Ireki dezakete dantzaleku eta diskotekek?

E- Ez. Debekatuta dago dantzalekuen eta diskoteken lizentzia duten establezimenduen jarduera, zuzeneko musika emanaldiak izan nahiz ez.

31. G- Ireki al daitezke elkarte gastronomioak eta peñak?

E- Ez. Bertan behera geldituko da elkarte gastronomikoen eta peñen jarduera, eta itxita egonen dira.

Etenaldi horretatik salbuetsita daude bostehun biztanle baino gutxiagoko udalerrri eta kontzeju txikietan kokatutakoak, baldin udalerrri edo kontzejuan ez badago kafetegi, jatetxe edo tabernarik eta haiek

badira herri guztia elkartzeko lokal bakarrak.

32. G- Aisialdiko etxabeetan, piperetan, "pipoteetan" edo antzekoetan elkartu gaitzke?

E- Ez, itxita egonen dira.

Nafarroako Foru Komunitatean, kuadrillen eta gaeko aisialdiaren esparruan, gazteen artean kasu positiboak nabarmen ugaritu direnez, honako hau **agintzen da** prebentzioz:

- jarduera oro **eten dadila** Nafarroako Foru Komunitatean kokatuta dauden "aisialdiko etxabe" edo "pipote" deituriko lokaletan eta antzekoetan.

33. G- Udalerrri txikietan ireki daitezke aisialdiko etxabeak, piperak, "pipoteak" edo antzekoak?

E- Azken erroldaren arabera bostehun biztanle baino gutxiago dituzten udalerrri eta kontzeju txikietan kokatutako lokaletan, baldin eta kafetegirik, jatetxerik edo tabernarik ez badago eta herritar guztientzako bilera-lokal bakarrak badira, **alkateek baimena eman dezakete lokal horien terrazak erabiltzeko eta, salbuespen gisa, barnealdea erabiltzeko**, horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte eta Nafarroako Gobernuak 2020ko ekainaren 19an hartu zuen Erabakian ezarritako prebentzio neurri guztiak betetzen badira (Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2020ko ekainaren 19an hartua, Nafarroako Foru Komunitatea normaltasun berrian sartzen dela deklaritzen duena eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio neurriak ematen dituen, Normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren. Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2020ko ekainaren 20an argitaratua).

Neurri hau berrikusten ahalko da uneko egoera epidemiologikoaren bilakaeraren arabera.

34. G- Debekatua dago "kale-zurruta" egitea?

E- Bai. Debekatuta daude alkohola kontsumitzeko bizikidetzak topaketak eta aisialdiko ospakizunak ("kale-zurruta" eta antzekoak) bide publikoan, parkeetan eta plaza publikoetan eta jendea dabilen beste toki batzuetan.

Segurtasun indar eta kidegoek kontrolatuko dute debeku hori, eta dagozkion zehapenak ezartzen ahalko dira, aplikatzekoa den araudi indardunaren arabera.

35. G- Zein baldintza bete behar dituzte merkataritza-gune edo -parkeen parte ez diren txikizkako merkataritza

establezimenduek eta lokalek eta jendearentzat irekita dauden jarduera eta zerbitzu profesionalekoek?

E-

- **Ezin izanen da gainditu baimenduriko gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar.** Lokalek solairu bat baino gehiago baldin badute, bezeroek proportzio berari eutsi beharko diote solairu bakoitzean.
- Beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira instalazioetan pertsonen arteko segurtasun tarteak gordetzeko eta maskara erabiltzeko.
- Saiatu behar da 65 urtetik gorakoei zerbitzua lehentasunez ematen.

36. G -Zer baldintza bete behar dituzte merkataritza-gune edo -parketzat jotzen diren establezimenduek, edo horien zati direnek?

E-

- Merkataritza-gune eta -parkeetan, **ezin izanen da gainditu baimenduriko gehieneko edukieraren ehuneko berrogei** eremu komunetan eta atsedeen eremuetan; merkataritza-gune edo -parke bakoitzaren autobabeserako planak zehazten du zein den gehieneko edukiera hori.
- Merkataritza-gune eta -parkeetan dauden **lokaletan ezin izanen da gainditu baimenduriko gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar.**
- Kasu guztietan, beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira instalazioetan pertsonen arteko segurtasun tarteak gordetzeko eta maskara erabiltzeko.
- Saiatu behar da 65 urtetik gorakoei zerbitzua lehentasunez ematen.

37. P- Zer baldintza bete behar dira ezkontza zeremoniak eta beste ospakizun sozial, erlijioso edo zibil batzuk egin nahi badira?

E- Ezkontza zeremoniak eta beste ospakizun sozial, erlijioso edo zibil batzuk

- egiten ahalko dira, aire zabaleko tokietan nahiz itxietan, **baldin eta edukieraren ehuneko berrogeita hamar gainditzen ez bada eta, kasu guztietan, erabiltzaile bakoitzeko 2,25 metro koadroko azalera baldin badago.**

- Irailaren 14tik aurrera, zeremoniaren ondotik ospakizunak egiten badira ostalaritza eta jatetxe zerbitzuak dituzten establezimenduetan, bete beharko dira pertsonen arteko segurtasun neurri orokorrak **eta, kasu guztietan, 1,5 metroko tartea, eta ez da behin ere gaindituko berrogeita hamar pertsonako kopurua, gehienez, establezimenduen barruan, eta hirurogeita hamabost pertsonakoa, kanpoan bada.**
- Ez dago baimenduta dantzatzeko pista edo horretarako prestatutako eremua erabiltzea.

38. G- Zer edukiera bete behar dute gurtza-lekuek?

E- Gurtza-lekuetan ezin izanen da gainditu baimendutako gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar, eta, kasu guztietan, **2,25 metro koadro egon beharko dira erabiltzaile bakoitzeko.**

39. G- Zer baldintza bete behar dituzte beilek eta hiletak?

E- Behar bezala gaitutako instalazioetan egin daitezke beilak, baldin eta gehieneko **edukieraren ehuneko berrogeita hamar gainditzen ez bada.**

Hiletan segizioa 50 pertsonara mugatzen da, barnean hartuta familiakoak, hurkoak eta kultu ministroa.

40. G- Zer edukiera bete beharko dute akademiek, autoeskolek eta irakaskuntza ez-arautuko zentro pribatuek, eta prestakuntza zentroek?

E- Akademia, autoeskola eta irakaskuntza ez-arautuko zentro pribatuetan eta prestakuntza zentroetan gauzatzen den jarduera aurrez aurre ematen ahalko da, **baldin eta baimenduriko gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar gainditzen ez bada.**

41. G- Zer baldintza bete behar dituzte azoka txikiak?

E- Bide publikoan, aire zabalean nahiz salmenta ez-sedentarioan aritzen diren merkatuetan, azoka edo merkatu txikiaren izenaz ezagun diren horietan:

- Postuak aurrez aurre bereizita egon beharko dira, igarobide baten bidez. Bide horrek erabiltzaileak ibiltzeko espazioa markatuko du, eta erabiltzaileen artean gutxienez 1,5 metroko pertsonarteko distantzia gordetzen ahal dela bermatuko du. Elkarren ondoko bi posturen artean elementu isolatzaileak paratuko dira, postuen arteko independentzia gordetzeko; halakorik ez bada, 1,5 metroko tartea egon beharko da, gutxienez.

42. G- Zer edukiera bete behar dute igerilekuek?

E- Aisialdiko igerilekuetan, kanpokoetan zein estalietan, edukieraren ehuneko berrogeita hamarreko muga gorde beharko da, hala haietara sartzeko nola aisialdiko jardueretan bertan.

Nafarroako Kirolaren Institutuak arautuko du kirol jardueretarako igerilekuen erabilera.

43. G- Nolakoak izan behar dute espazio itxietako kirol-jarduera fisikoak?

E- Gorputz eta kirol jarduera zuzenduak espazio itxietan egiteko taldeetan ez dira arituko hamabost pertsona baino gehiago.

Nafarroako Kirolaren Institutuak arautuko ditu jarduera hauek egiteko baldintza espezifikoak.

44. G- Zer edukiera bete behar dute joko eta apustueterako lokalek?

E- Joko eta apustueterako establezimenduek eta lokalek beren jarduera gauzatzen ahalko dute, baldin eta baimenduriko **edukieraren ehuneko berrogeita hamar** gainditzen ez bada.

45. G- Zer edukiera bete behar dute kultur ekitaldiek?

E- Espazio itxietako kultur ekitaldietan, ez da gaindituko **gehienez baimendutako edukieraren ehuneko hirurogei**, eta eserlekuak aurrez esleitu beharko dira. **Edukiera 350 pertsonatik gorakoa bada, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak txosten bat eman beharko du alde zuzenetik.**

Kultur ekitalditzat jotzen dira Nafarroako Gobernuak 2020ko ekainaren 19an hartutako Erabakiaren eranskinaren 3.17 puntuan zehazten direnak. Erabaki horren bidez, Nafarroako Foru Komunitatea normaltasun berria sartzen zela deklaratu zen eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriak eman ziren, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

46. G- Zer prebentzio neurri bete behar ditut nire herrian "festak ospatuko liratekeen aldirian", gaueko aisialdiari dagokionez?

E-

- Nafarroako Foru Komunitate guztiko herrietako festak ospatuko liratekeen aldietan:
- Tabernak, kafetegiak, jatetxeak, taberna bereziak, ikuskizunetarako kafetegiak, josteta aretoak, ziberzentroak, bingo-aretoak, joko-aretoak, kirol-aretoak, diskotekak eta dantzalekuak 00:00etan itxi beharko dira. Ixteko ordutegi horretan ez da sartzen jendea lokaletik joateko ordutegia.

47. G- Jende askoko ekitaldiak eta jarduerak antola daitezke?

E- Jendetza biltzen duten ekitaldiak egitea aurreikusten bada, **ezinbestekoa izanen da** Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak **aldez aurretik arriskuen ebaluazioa egitea**, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren Osasun Publikoko Batzordearen irizpideei jarraikiz.

Behin hori eginda, eskumena duen organoak baimenduko du ebaluazioa, aurrez Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren **nahitaezko txosten loteslea eginda**. Txosten hori ekitaldia baino 7 egun balioudun lehenago eskatu beharko da, gutxienez, ispdirec@navarra.es helbide elektronikoaren bidez, "Gaia: EKITALDIA" adieraziz.

48. G- Aparteko zer neurri hartzen da egoitza soziosanitarioetan?

E- Egoitza soziosanitarioetan aparteko neurri hauek hartzen dira:

PCR proba diagnostikoak egitea

- Egoitza soziosanitarioetan, adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen eremuetan, PCR probak eginen zaizkie egoiliar berri guztiei, 72 ordu lehenago gehienez. Era berean, PCRak eginen zaizkie 14 egunetik gorako baimenetatik eta oporraldietatik itzultzen diren langile guztiei, bai eta lanean hasten diren langile berri guztiei ere.

Bisitak.

- Adinekoen eta desgaitasunen bat duten pertsonen zentro soziosanitarioetan bizi diren pertsonak **bisitatzeko, pertsona bakarra sartuko da egoiliar bakoitzeko**, prebentzio neurri zorrotzenak betez eta **gehienez ere ordubetez egunean**.
- Salbuetsiko da egoiliarrak bizitzaren azken prozesuan daudenean.
- Bermatuko da egoiliarrei egunean zehar egiten zaizkien bisitak mailakatuta izanen direla.

Egoiliarrak kalera ateratzea

- Ahalik eta gehien mugatuko dira adinekoak izanik edo desgaitasunen bat izanik zentro soziosanitarioetan bizi direnen irteerak.

49. G- Agerraldi epidemikoa gertatzen bada, baheketak eginen dituzte PCR proben bidez?

E- Bai. PCR bidezko baheketak eginen dira berariazko taldeetan.

Agerraldi epidemikoa izanez gero, osasun agintariak baheketak eginen dituzte PCR proben bidez arriskuan dauden eta egon daitezkeen taldeetan, hala nola zentro soziosanitarioetako egoiliarren artean, transmisio komunitarioa duten auzoetan, ikastetxeetan, kaltetutako etxebizitza-blokeetan, kolektibo kalteberetan eta osasun agintaritzak egokitzat jotzen dituen guztietan.

4 Neurriak ez betetzeagatiko zehapenak

9/2020 Foru Lege-dekretua

- Nafarroako Foru Komunitateak COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiari aurre egiteko ezarritako osasun-neurriak betetzen ez badira aplikatuko den zehapen-araubidea arautzen du.
- Arau-haustea argitzen eta xehatzen ditu, herritarrei segurtasun juridiko handiagoa emateko eta administrazioaren aldetik zigorgarriak diren jokabideak ezagutzeko.

50. G- Zer zehapen-mota daude ezarritako neurriak betetzen ez baditut?

E- Arau-hauste administratiboak **arinak, astunak** eta **oso astunak** izanen dira, irizpide hauen arabera: osasunerako arriskua, intentzionalitate maila, sortutako osasun- eta gizarte-kaltearen larritasuna eta arau-haustea orokortzea eta berrerortzea.

51. G- Zein dira arau-hauste arinak eta zer zehapen izanen dute?

E-

Arau-hauste arinak

1. **Maskara erabiltzeko betebeharra ez betetzea edo behar ez bezala erabiltzea**, osasun-agintariek ezarritako baldintzetan.
2. Agintari eskudunek ezarritako **higiene- eta prebentzio-neurriak ez betetzea**, edozein **establezimendu edo jarduera motatarako, leku irekian edo itxian, publikoa edo pribatua izan**, herritarren osasunerako arrisku edo kalte arina sortzen denean.
3. **Jendaurreko establezimenduek ez betetzea mahai bananduetako aulkien arteko segurtasun-distantzia, ez barrualdean, ez kanpoaldean.**
4. **Jendaurreko establezimenduek edo jarduera publikoek ez betetzea bezeroei edo erabiltzaileei informazioa eman beharra ordutegiari, lokalaren edukierari, pertsonen arteko distantziari eta, hala badagokio, maskara erabiltzeko nahitaezkotasunari buruz, COVID-19aren prebentzio-neurri gisa.**
5. Agintari eskudunek onartutako **berriarazo planak edo**

antolaketa-protokoloak ez betetzea, horrek herritarren osasunerako arrisku edo kalte arina eragiten badu.

6. **Kontingentzia-protokolo edo -planak** egiteko betebeharra ez betetzea, protokolo edo plan horiek egiteko betebeharra agintari eskudunek ezarria duten establezimendu edo jardueren kasuan, baldin eta herritarren osasunerako arrisku edo kalte arina sortzen bada.

7. **Pertsonen arteko segurtasun-tarte fisikoa ez betetzea leku eta bide publikoetan edo jendea pilatzen den toki ireki edo itxietan**, adostutako baldintzetan.

8. Osasun-agintaritzak eskudunak erabaki duen **berrogeialdiko kautela-neurria ez betetzea COVID-19agatik positibo eman ez duten baina COVID-19a duen pertsona erri baten kontaktu estuan diren pertsonen kasuan**.

9. Edari alkoholdunak partekatzea bide publikoan eta osasun-agintaritzak baimentzen ez dituen jendaurreko gainerako gunetan, herritarren osasunerako arrisku arina dagoenean (kale-zurrutak): **600 euroko isuna izanen dute, gutxienez**.

10. **Bide publikoan** edo aire zabalean **erretzea** (tabakoa, ur pipak, pipak edo antzekoak), **baldin eta ezin bada gorde 2 metroko gutxienerako tartea pertsonen artean**.

11. Osasun-agintaritzak eskudunak dekretaturiko **konfinamendu-agindu orokorra** ez betetzea.

12. 9/2020 Foru Lege-dekretuaren arabera hartutako behin-behineko neurriak urratzea.

Arau-hauste arinek zer zehapen dute?

- Arau-hauste arinek **100 eurotik 3.000 eurorainoko isuna izanen dute zehapen**.
- **Maskara nahitaez ez erabiltzea edo erabilera desegokia egitea gutxienez 300 euroekin zehatuko da, baldin eta arau-haustea ez badu errespetatzen 1,5 metroko segurtasun-tarte fisikoa**.
- Edari alkoholdunak partekatzea bide publikoan eta osasun-agintaritzak baimentzen ez dituen jendaurreko gainerako gunetan (kale-zurruta egitean), herritarren osasunerako arrisku arina dagoenean, **600 euroekin zehatuko dira, gutxienez**.
- Adierazitako isunez landa, interesdunari entzun ondoren, **zehapen osagarriak** erabakitzen ahalko dira, hala nola arau-haustea gertatu den establezimendua, instalazioa edo zerbitzua aldi baterako ixtea edo jarduera egiteko debekua, gehienez ere bost urteko epean.

52. G- Zein dira arau-hauste astunak eta zer zehapen izanen dute?

E-

Arau-hauste astunak

Arau-hauste astuntzat joko dira **herritarren osasunerako arrisku edo kalte larria sortzen dutenak**:

1. Establezimenduetan edo jardueretan **edukiera-mugak edo baimendutako gehieneko pertsona-kopuruak ez betetzea.**
2. **Bilera, jai edo beste edozein jarduera edo ekintza** iraunkor edo noizbehinkakoren bat egin edo merkaturatzea, pribatua edo jendaurrekoa, **espazio publiko edo pribatuetan, baldin eta bertan jende pilaketak gertatzen badira, eragotziz edo zailduz prebentzioko osasun-neurriak hartzea** eta, ondorioz, herritarren osasunerako arrisku edo kalte larria ekarri.
3. **Horrelako egintza edo bilerak sare sozialen bidez deitzea**, baldin eta deialditik ondoriozta badaiteke osasun-agintaritzak eskudunak emandako arauak urratzeko asmoa dagoela COVID-19aren aurkako prebentzio-neurriei dagokienez.
4. **Establezimendu edo jarduera mota bakoitzerako ezarritako higie-, prebentzio- eta kontrol-neurri orokorrak edo espezifikoak ez betetzea**, espazio edo lokal publiko edo pribatuetan, horrek biztanleriaren osasunerako arrisku edo kalte larria eragiten badu.
5. Osasun-agintaritzak eskudunek **berariaz debekatutako edo bertan behera utzitako lokalak irekitzea, ekitaldiak egitea edo jarduerak egitea.**
4. Osasun-agintaritzak adostutako **etxean bakartzeko betebeharra ez betetzea**, COVID-19a dela eta baieztatutako kasu positiboak diren pertsonen kasuan.
5. **Kontingentzia-protokolo edo -planak egiteko betebeharra ez betetzea**, protokolo edo plan horiek egiteko betebeharra agintari eskudunek **ezarria duten** establezimendu edo jardueren kasuan, baldin eta herritarren osasunerako arrisku edo kalte larria sortzen bada.
6. Agintari eskudunek onartutako **berariazko planak edo antolaketa-protokoloak ez betetzea**, horrek herritarren osasunerako arrisku edo kalte larria eragiten badu.
7. COVID-19aren aurkako neurrien ondorioz **establezimendu eta jarduerak irekitzeko eta ixteko ezarritako ordutegi bereziaren ez-betetze egiaztatua.**
8. **Agintaritzak eskudunari ez jakinaraztea**

gaixotasunaren susmorik edo diagnostikorik izan den, edo deklaratu beharreko gertaera garrantzitsurik izan den.

9. Agintari ikuskatzaileei edo agenteei **laguntza, sorospena edo lankidetzak ukatzea**, edo establezimendu, zentro, instalazio edo jardueretara sartzen ez uztea, COVID-19arekin lotutako egiaztapen eta ikuskapenetan.

10. **Datuak emateari aurka egitea** edo agintariei, ikuskatzaileei edo agenteei informazioa emateko oztopoak jartzea, baita informazio okerra ematea ere, COVID-19arekin lotutako egiaztapen eta ikuskapenetan.

11. **Edari alkoholduak partekatzea bide publikoan** eta osasun-agintaritzak baimentzen ez dituen jendaurreko gainerako gunetan, **herritarren osasunerako arrisku larria dagoenean**.

12. Osasun-agintaritzak eskudunak dekretaturiko **konfinamendu** agindu orokorra **behin eta berriz ez betetzea**.

13. **Arau-hauste arin bat baino gehiago behin eta berriz egitea urtebeteko epean**, ebazpen irmo baten bidez halakotzat jo bada.

14. COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko **onetsitako araudia** edo hartutako neurriak, aginduak, ebazpenak edo egintzak **ez betetzea, egitez edo ez-egitez**, betiere herritarren osasunari kalte larria eragiten badiote.

Arau-hauste astunak zer zehapen izanen dute?

- Arau-hauste astunak 3.001 eurotik 60.000 eurorainoko isuna izanen dute zehapen.
- Adierazitako isunez landa, interesdunari entzun ondoren, **zehapen osagarriak** erabakitzen ahalko dira, hala nola arau-haustea gertatu den establezimendua, instalazioa edo zerbitzua aldi baterako ixtea edo jarduera egiteko debekua, gehienez ere bost urteko epean.

53. G- Zein dira arau-hauste oso astunak eta zer zehapen izanen dute?

E-

Arau-hauste oso astunak

Arau-hauste oso astuntzat joko dira **biztanleriaren osasunerako**

arrisku edo kalte oso larria sortzen dutenak:

1. Establezimenduetan edo jardueretan **edukiera-mugak edo baimendutako gehieneko pertsona-kopurua ez betetzea**, horrek herritarren osasunerako arrisku edo kalte oso larria eragiten duenean.

2. **Bilera, jai edo beste edozein jarduera edo ekintza iraunkor edo noizbehinkakoren bat egin edo merkaturatzea**, pribatua edo jendaurrekoa, espazio publiko edo pribatuetan, baldin eta bertan **jende pilaketak gertatzen badira, eragotziz edo zailduz prebentzioko osasun-neurriak hartzea** eta, ondorioz, herritarren osasunerako arrisku edo kalte oso larria ekarri.

Arau-hauste oso astuntzat joko da **horrelako egintza edo bilerak sare sozialen bidez deitzea behin eta berriz**, baldin eta deialditik ondoriozta badaiteke osasun-agintaritzak eskudunak emandako arauak urratzeko asmoa dagoela COVID-19aren aurkako prebentzio-neurriei dagokienez eta herritarren osasunerako arrisku edo kalte oso larria dagoela.

3. Osasun-agintaritzak eskudunek **berariaz debekatutako edo bertan behera utzitako lokalak irekitzea, ekitaldiak egitea edo jarduerak egitea, herritarren osasunerako arrisku edo kalte oso larria eragiten dutenean.**

4. Osasun-agintaritzak erabakitako **etxean bakartzeko betebeharra behin eta berriz eta modu egiaztatuan ez betetzea**, COVID-19a dela eta baieztatutako kasu positiboak diren pertsonen kasuan, **baldin eta horrek osasun publikoari kalte oso larria eragiten badio.**

5. **Establezimendu edo jarduera mota bakoitzerako ezarritako higiene-, prebentzio- eta kontrol-neurri orokorrak edo espezifikoak ez betetzea**, espazio edo lokal publiko edo pribatuetan, horrek herritarren osasunerako **arrisku edo kalte oso larria eragiten badu.**

6. COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko hartutako neurriak edo **araudia ez betetzea, egitez edo ez-egitez**, betiere herritarren osasunari kalte oso larria eragiten badiote.

7. Agintaritzak eskudunak jasotako **protokoloak, planak edo jarraibideak behin eta berriz eta modu egiaztatuan ez betetzea**, baldin eta horrek osasun publikoari kalte oso larria eragiten badio.

8. **Agintari eskudunei, ikuskatzaileei edo agenteei dokumentazio faltsua ematea**, COVID-19arekin lotutako egiaztapen eta ikuskapenetan.

9. **Arau-hauste astun bat baino gehiago behin eta berriz egitea urtebeteko epean**, ebazpen irmo baten bidez halakotzat jo bada.

10. COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko hartutako neurriak, aginduak, ebazpenak edo egintzak, edo onetsitako **araudia ez betetzea, egitez edo ez-egitez**, betiere herritarren osasunari kalte oso larria eragiten badiote.

Arau-hauste oso astunek zer zehapen izanen dute?

- Arau-hauste oso astunek 60.001 eurotik 600.000 eurorainoko isuna izanen dute zehapen.
- Adierazitako isunez landa, interesdunari entzun ondoren, **zehapen osagarriak** erabakitzen ahalko dira, hala nola arau-haustea gertatu den establezimendua, instalazioa edo zerbitzua aldi baterako ixtea edo jarduera egiteko debekua, gehienez ere bost urteko epean.

54. G- Zehapenak murriztu daitezke?

G- Proposatutako zehapena isun bat denean, **zehapen-espeditentea irekitzeko ebazpenean ezarritako epea igaro baino lehen ordaintzen bada isunaren zenbatekoa, egitateen erantzukizuna aitortuko da, eta zehapenaren zenbatekoa ehuneko berrogeita hamar murriztuko da.**

55. G- Nor dira arau-hausteen erantzuleak?

E-

- Erantzuleak izanen dira, halaber, **establezimendu publikoen edo horien lizentzien titularrak, eta ikuskizun publikoen eta josteta jardueren antolatzaileak eta sustatzaileak**, haiena izanen baita ikuskizunean edo jardueran parte hartzen dutenek egindako arau-hausteen gaineko erantzukizuna, baldin eta, arduragabekeria tarteko, halakoak ekiditeko behar diren neurriak ez badituzte hartu edo, hartuta ere, bertaratutakoek neurriak bete ez badituzte eta entitate titularrak, antolatzaileak edo sustatzaileak berehalakoan horren berri eman ez badio agintaritzaren eskudunari.
- **Turismo edo merkataritzako ustiategien, enpresen edo jardueren titularrek izanen dute langileek zerbitzuak ematean egindako arau-hausteen gaineko erantzukizun administratiboa**, eta haien kontra dagozkien berreskaera akzioak betetzen ahalko dituzte.
- **Arau-haustea adingabea** denean, ezarritako isunaren

erantzukizun solidarioa izanen dute **gurasoek, legezko tutoreek, hura harreran dutenek edo haren lege zaintza dutenek.**

- **“Aisialdiko etxabeen”, “pipote” izenekoan edo antzekoan kasuan, erantzuleak izanen dira legez kanpoko jardueran ari diren pertsona fisikoak.**
- **Elkarte gastronomikoen eta “peña” direlakoan kasuan, erantzuleak izanen dira bertan legez kanpoko jardueran ari diren pertsona fisikoak.**
- Erantzuleak izanen dira prebentzioko osasun neurriak hartzea galarazi edo oztopatzen duten jende pilaketak sortzen dituzten **ekitaldi edo bilkuretarako deialdia egiten duten pertsona fisikoak edo juridikoak**, egoera horrek jendearen osasunerako arrisku edo kalte larria eragiten duenean edo eragin dezakeenean; erantzuleak izanen dira, halaber, ekitaldi edo bilkura horien zabalkundearen laguntzen dutenak.

56. G- Noiz preskribatzen dute arau-hauste eta zehapenak?

E-

- Arau-hauste arinak urtebeteren buruan preskribatuko dira, astunak bi urteren buruan eta oso astunak hiru urteren buruan.
- Arau-hauste arinengatik ezartzen diren zehapenak urtebeteren buruan preskribatuko dira, arau-hauste astunengatik ezartzen direnak bi urteren buruan eta arau-hauste oso astunengatik ezartzen direnak bost urteren buruan.

57. G- Zer gertatzen da 9/2020 Foru Lege-dekretuaren aurretik ezarritako zehapenekin?

E-

Foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenean jadanik hasita dauden zehapen prozedurak tramitatzen segituko dira, eta arau-haustea egin zenean indarrean zegoen araudiaren arabera ebatziko dira.

Jadanik eginda dauden baina zehapen-espeditentea irekitzea eragin ez duten salaketak 9/2020 Foru Lege-dekretuan xedatutakoaren arabera tramitatuko dira, arau-haustea egin den unean indarrean dagoen legeria materiala aplikatzea onuragarriagoa denean izan ezik.

58. G- Nork ikuskatu eta kontrolatuko ditu?

E-

- Estatuaren eskumenak ukatu gabe, ikuskapen eta kontrol lanak

Nafarroako Foru Komunitateko edo toki entitateetako agintaritzaren edozein agentek edo funtzionariok beteko ditu, behar bezala akreditatuta.

- Nafarroako Gobernuak eskatzen ahalko dio Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean duen Ordezkaritzari bere agintepean dituen Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek parte har dezatela dagozkien ikuskapen eta kontrol lanetan.
- Behar diren toki entitateen bitartez, jarraibideak bidaltzen ahalko dira ikuskapen eta zainketa lanak koordinatzeko eta irizpideak bateratzeko.

ERANS KINA

Erantzukizunpeko adierazpena maskara nahitaez erabiltzetik salbuetsia izateko, nahitaezko erabilera ezartzen baitu Osasuneko kontseilariaren uztailaren 15eko 34/2020 Foru Aginduak, zeinaren bidez maskararen erabilerarekin lotutako prebentzio neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisialdian

..... jauna/andrea	NANa:	
Helbidea:		
Telefonoa:		

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DUT: (hautatu bat)

1. Arnas eritasunen bat edo arnasa hartzeko zailtasunen bat dudala, maskararen erabilerak larriagotu dezakeena.
2. Nire desgaitasun edo mendekotasun egoeragatik ezinezkoa zaidala maskara erabiltzea.
3. Maskara kentzeko autonomiarik ez dudala.
4. Maskara erabiltzea bideraezina egiten duten jokabidearen nahasmenduak ditudala.
5. Ezinbesteko kasuak.

Berariaz zehaztu eritasunaren edo zailtasunaren kausa:

--

Halaber, adierazten dut erantzukizunpeko adierazpen honetan egiatik urrundu izanak eragin ditzakeen legezko ondorioen erantzule naizela.

Sinatzen dut, behar diren ondorioak izan ditzan, uztailaren 15eko Foru Aginduan ezarritakoa betetzeko

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n.

Norbere izenean edo tutore/arduradun gisa. Stua.: Izena eta
NANa:

--